

### 3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Alde batetik enpresaren bazkideak aipatuko ditugu, eta bestaldetik enpresaren hornitzaileak.

Enpresaren sortzaileak 4 bazkide dira: Eder Arteche, Ayshane Lijo, Gorka Gil eta Unai San Antón. Bazkide hauek, enpresaren botere portzentai berdina dute bakoitzak 2500€ jarriko dituelako; hori dela eta, bakoitzak %25 dauka.

- Eder arduratuko da marketinaz, programatzailearen laguntzarekin, Googleren web-orrietan edo beste edozein bilatzailetan agertzen diren sare sozialak eta iragarkiak erabili ahal izateko. Horrela, gure zerbitzuaren berri emango zaie Erandioko enpresetako bezeroei; beraz, ENHES enpresa handitzeaz arduratuko da.
- Ayshane enpresaren administrazio orokorrak arduratuko da, finantza-gaiak, diru-sarrerak, enpresaren zorrak... administratuz eta kontabilitatea eramaten. Bestalde, programatzaile bat kontratatu dugu mantentze-lanez arduradain eta webgunea sortzeko. Horrela, Ederri lagunduko dio online marketinarekin, eta webgunea eguneratuta eta seguru mantendu ahal izango du.
- Gorka gure bezero potentzialekin kontaktuan jarriko da. Enpresei deituko die gure webgunearen berri emateko; horrela, zuzenean jarri ahal izango gara haiekin harremanetan marketina erabili beharrik gabe. Kontaktuan jarriko da hainbat gauzetarako, adibidez, ea publizitatea jarri nahi duten gure webgunean eta halako gauzak. Hau da, Gorkak salmentaz arduratuko da.
- Unai bezeroen zalantzak argitzeaz arduratzen da, web-orrian agertuko den telefono-zenbaki baten bidez. Horrela, zure zalantzak modu profesionalagoan eta azkarragoan argitu ahal izango ditugu. Horrela, bezeroen batek web orrian akatsen bat badu, langile batekin kontsultatu ahal izango du dei baten bidez. Hau da, Unai bezeroentzako arretaz arduratuko da.

Bazkideaz aparte, programatzaile bat kontratatuko dugu.



- Programatzaileak webgunea sortzeaz eta bere mantenuaz eta arazoaz arduratuko da. Horrez gain, online inkesta batzuk sortuko ditu bezeroen gogobetetasuna egiaztatzeko. Enpresaren funtzionamendua hobetzeaz arduratuko da eta bezeroen nahiak aztertu beharko du.



Hasieran gure enpresak ez ditu inbertsorarik eukiko, momentuz bazkideek jarri duten diruarekin balio duelako . Hala ere, enpresa hazten denean, inbertsore berriak bilatuko ditugu, enpresa hobetzeko. Inbertitzaile batzuk bilatzen ditugunean, haien baldintzak negoziatu egingo dira. Bazkideek inbertsore honi, dibidenduen portzentai bat proposatuko diete, inbertsoreak jarritako finantzazioaren arabera, baina ez enpresaren portzentaia bat. Hau guztia negoziatu beharko da.